

Juan San Martin

Euskaltzaina

Eurogutuna

Espainiak, 1978ko Konstituzioaren 3. artikulua aldatu behar luke, Estadupean dauden hizkuntza guziaz onartzeko, bere garaian Euskaltzaindiak eskatu zuen bezala

■ Pozez irakurri dut urriaren 11ko EGUNKARIAK bere 15. orrialdean zekarren berria, *Eurokarta duintasunez sinatzea galdeginen dute Baionan urriaren 24an* izenburupean. Non dei egiten duen Frantziako hizkuntza gutituen alderako elgarretaratzeaz manifestapena, Baionan, urriaren 24an.

Baionan Abertzaleen Batasunak, Berdeek, CFDT sindikatuak eta AEK-k bat egingen dute ekimenarekin, Europaren sinatze *duina* galdegiteko. Ekintza bikaina benetan.

Orainarteko gure politikariak gehiegi nahastu izan dira elkarren arteko taldekerietan, beharrezkoena bazterturik. Izan ere, herri nortasunez, zer dugu gure hizkuntza gutitua baino baliogarriagorik? Orokorki, denok gara Europaren osagarri, hemen ez da inor sobera eta arrazoia ez dago gehiengo indarraren baitan; elkar errespetatuz eta errespetaraziz baikik. Hortarako, egia hori aurrera eramango bada, hizkuntza gutituetako biztanleek, zuhur jokatu beharra dute.

Nondik nora bideratu beharra dugunaren ereduarririk ere ez zaigu falta. Nik zuzen ezagutu ditudan artean, adibidez, hor dugu Suitzako Konstituzioa, hor Txekok txekera gutituarentzat hautatu zuten jokera, hor Tirol hegoaldean hizkuntza gutituaren babespena.

Gaztelera ikasketak egin zituen euskalduna izanik, helbetiar Konstituzioa ezagutzeak iratzartu ninduen eta hortik bihurtu nintzen euskaltzale. Mundu hau bakoitzak beranetik osatu beharra iruditzen zaidalako.

Estrasburgon Europako Kontseiluak eskualdeetako edo gutituriko hizkuntzei buruzko Eurogutuna 1992ko otsailaren 19-21.ean aurkeztu zuenetik laster European Ombudsman Institute erakundeak batzarra antolatu zuen, bere eskualdean hizkuntza bat baino gehiago mintzatzen ziren herrieta-koak deituaz. Ombudsmanok, Bonn-eko Legebiltzarrean, Eurogutun horren aurrean, bakoitzak bere iritziak agertzea eskatzen zitzaigun. Egia esan, guziaz ahoz onartu genuen. Eta inori ez zitzaion iruditzen etikoa ombudsman batek bere eskualdean bizirik zirauten hizkuntzak ez jakitea. Lehen lehenik, administratzaileen aurrean, hiritarren eskubideak gorde behar zituenarentzat nahitaezkoa iruditzen zitzaigun bertako hizkuntzak ezagutze hori.

Irizpen horren giropean egin nituen 1992 eta 1993ko Ararteko txostenen aurkezpenak. Eurogutunaren kopiak ere zabaldu nituen, baina gure politikarien artean nonbait ez zuen arretazko jarrerarik izan. Gero, gai horren ingurugiroan Herrialdeko Ombudsmanaren Garrantziaz oinarrituriko hitzaldiak antolatu genituen Gasteizen. Han, 1993ko urriaren 29an, Tirol Hegoaldeko Ombudsman den Dr. Werner Palla jaunak eman zigun hitzaldi jakingarriak, ikasbiderik aski eskaintzen zigun, hizkuntza gutituetan zelan jokatu behar genuenari buruz. Baina, zoritxarrez, gure politiko-

rik azaldu ez eta hizkuntza-politikaz arduratzen zenik ere ez.

Gutun horren inguruan, aurten argitaratu dudak *Euskararen ostarateak* deritzan liburua 55-60. orrialdeetan ematen ditut zenbait xehetasun, iritzi eta adierazpenetan oinarriturik.

Handik laster jakin genuen, berriz ere, gure eta Europaren Batasun eta bakebidetaren zoritxarrerako, hizkuntza gutituen alderako gutunari Frantziak betoa jarri ziola. Eta oraindik ere hor jarraitzen du, onspenaren faltaz eta europarron ahalkegarri. Jokaera maltzur hori aldatu beharrezkoa iruditzen zait beranduegi izan baino lehen.

eskualdetako hizkuntzak ofizial izan ala ez. Haserreak sortzeko hori bai da biderik egokiena, eta ibiliak erakutsi digu bertako hizkuntza jatorra errespetaraztea eskatzen dugunok zenbat haserre leporatu behar izan dugun.

Gainera, esan beharrezkoa iruditzen zait, ez Frantziak eta ez Espainiak ez diotela jarraitu giza-oreka gordetzeko hain eredu garri den Suitzako Konstituzioari; baina ez eta ere ONUk 1948. urtean Giza Eskubideen Agiriaren 2. artikuluan gomendatzen zuenari.

Berriki, Lionel Jospinek agindu omen du, Eurogutuna sinatuko duela. Hala bada, betor ordu onean. Baina ez dadila

deetan, politika bideak egokitu behar zaizkie, praktikarako bideak lege indarrean jarritik. Maila guzietan behar diren aukerak eta medioak jarritik, hezkuntzan zein hizkuntza irakaskuntzan. Politika aldetik, ezinezko zaike hizkuntza tipiagoa ukatzerik, ez eta ere garapena arriskuan jarritik gutienez bazterturik. Horrez gainera, hizkuntza gutitua erabiltzen ez dutenez, mintzatzen direnen herrialdean bizi badira, nahi duten guziaz ikas ditzaten aukerak jarriko dira. Gurasoek hautatzen dutenaren arabera, maila guzietako ikasketak beraien hizkuntza jatorrean egiteko aukera emango zaie. Aldi berean, baita ere, hizkuntzarekin batean, bertako kultura jatorrean irakaskuntza. Hortarako beharrezko diren irakasleak prestatuz.

Era hortara jarraituz, 9. artikuluan, beste honako hauek azaltzen ditu: Juridiko aldetik ere, bi aldeetarik bati hizkuntza gutituan epaitzearen eskaria aski zaio bere burua berean defendatu ahal izateko. Hortarako, tribunalak, beharrezko diren bitartekariak jarri beharko ditu hizkuntza gutitua dakitenekin osatuz. Aldi berean, agiriak ere bere hizkuntza jatorrean jarritik.

Ondotik, 10. artikuluan: Administratzaile agintariek hizkuntza gutituen erabilerari lehentasuna emanaz eta berme zaindu beharko dute, gizarte harremanetan, idazketan ulergarri izatea zainduz, herriari begira administratzaileko formulak eta testuak elebitasunean argi jarriaz. Hizkuntza ofizialetan aukerako erabilerak eman ahal izateko. Ohizko toponimia ere eskualde bakoitzeko eran jarritik.

11. artikuluan ordea: Komunikabideei dagozkien arauak eskaintzen ditu, hizkuntza gutituen, gutienez, irriti bat eta telebista bat izan ditzaten. Aldi berean, horren lagungarri, prentsa sortaraziz eta bultzaraziz. Guzi horien beharra omen demokrazi gizarrean.


12. artikulua, kultur eraikuntza eta jarraian laguntza eskaintzean oinarritzen da: Biblioteka, akademia, antzerki, zinema, eta aldi berean literatura produktzioa, zinematografia eta abar, teknologia berriz hornituak noski.

13. artikuluan: Gizarte bizitza eta ekonomiarik buruzko ekintzak azaltzen ditu.

Eta, 14. artikuluan, guretzat hain interesgarri den elkarren arteko harremanak: Mugazgandiko harremanak buruzkoa denez gero. Oroi Europako bi estatu hertsienetako artean gaudela eta muga hori etetzeko hizkuntza baino arma hoberik ez dugula. Anai edo kiderik hurbilenak, lege natural guzien aurka, mugaz zatiturik eduki gaituztela eta orain dugula ordua Europa Batuan elkartzeko.

Bukatzeko, Gutunaren erabilerazko gomendioak, bidegarri egiteko batzorde lana, eta abar.

Otoi, guzi hori kontutan harturik, ideia bikaina iruditzen zait Baionan urriaren 24an, larunbata, izanen den manifestapenerako deia. ■



SIGERIDO KOCH ARRUTI

Europaren zein Ameriketako Estatuak, Estatuak gehiengo konstituzioetan ez da inoiz jartzen hizkuntza ofizialtasunik. Baina, aitortu beharrezkoa da, hedatuak berez duela indarrik gehien eta *de facto* agertzen direla besteak baino egoera hobean. Horren arabera, ez luke behar laguntza berezirik. Baina, hara hor, Frantziako Errepublikako Kontseiluak bere esku du hizkuntzei dagokien arazo hau eta bera da Europako Batasunean hizkuntza gutituen alderako gutunari betoa jarri diona. Zeren, bere Konstituzioaren 2. artikuluan kontrako omen da.

Artikulu horrek, horrela, Europaren izaera naturala ukatzen du eta anaikiro elkartasunean bizi ahal izateko era arriskuan jarri. Bestela, esan dezatela noren noren menpe egon behar den, Europa Frantziarena ala Frantzia Europarena?

Espainiak ere, 1978ko Konstituzioaren 3. artikulua aldatu behar luke, Estadupean dauden hizkuntza guziaz onartzeko, bere garaian Euskaltzaindiak eskatu zuen bezala. Ez bai da egokia autonomien baitara uztea zenbait

gertatu F. Mitterrand-ekin bezala, 1981eko maiatzean presidentetarako hautagai zela agindu bai, eta baita ere urte bete geroago, 1983ko maiatzaren 26an agertu *Journal Officiel*-ean Unibertsitate aurreko hezkuntzetan irakastea, euren artean euskara aipatuz. Baina, hori aurrera eramateaz ez zen ahalegin du. Beraz, asmoa hor gelditu zen hankazgora. Gai hauetaz, ikus Henriette Walter-en *L'Aventure des Langues Occidentales: leur origine, leur histoire, leur géographie* (1994).

Eurogutuna zertan den argibiderako, laburki eman ditzadan, bertan jasotzen diren pundurik aipagarrienak: Hasteko, sarrerakoan, Europak bere jatorriz duen hizkuntza orokortasuna adierazten du, denak osagarritzat joaz eta gizarte-oreka egokia lortzeko arau juridikoen beharra. Hortarako, lehen partean erabaki orokorren adierazpena dakar, ondokoetan zehaztasunak agertzeko.

Bigarren parteko 7. artikulua, dioenez: Eskualde tipietako hizkuntza gutituei dagokienez, erabiltzen diren herrial-